

EUSKO IRRATIA-RADIODIFUSIÓN VASCA, S.A.

Sozietatearen izena

Eusko Irratia-Radiodifusión Vasca, S.A.

IFK

A48139224

Izaera

Sozietate publikoa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Partida murriztaileak dituen balioespena.

Sorrera

Sozietatea 1982ko azaroaren 4an emandako eskritura publiko bidez eratu zen berezko nortasun juridikoarekin eta iraupen mugagabearekin. Honen bidez onartu zen horren sorrera: [Uztailaren 19ko 158/1982 DEKRETUA, "Eusko Irratia - Radiodifusión Vasca, S.A." akziokako Herri Baltzua sorrarazteari buruzkoa.](#)

Sail-atxikipena

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

JESN

6010. Irrati-difusioko jarduerak.

Helburu soziala

Sozietatearen helburua da emisio irrati-elektrikoak baliatuta soinuak uhinen bidez –edo horretarako diren kableen bidez– sortzea eta herritar guztiengana zabaltzea –bitartekoz edo bitartekorik gabe–, betiere helburua kultura, informazioa, artea, aisialdia, merkataritza eta publizitatea sustatzea eta zabaltzea izanik, hala nola hezkuntza-sistemeekin batera lan egitea, euskal kultura eta, batik bat, euskara sustatu eta garatzeko, bai eta, haietaz gain, aipatutako eginkizunekin bat etorri edo haien osagarri diren jarduera oro sustatu eta garatzeko ere.

Sailkapena kontabilitate nazionalean

Eskualde Administrazioiko Herri Administrazioak

Kapital soziala

2.508.610 €

Kapital sozialaren osaera

Euskal Irrati Telebista/Radio Televisión Vasca (EITB): % 100

Administratzaile bakarra

Honako hau da ekitaldiko kontuak egiten dituen sozietatearen administratzaile bakarra:

Maite Iturbe Mendialdua andrea «Euskal Irrati Telebista» Herri Erakundeko zuzendari nagusia.

Urteko aurrekontuak

www.euskadi.eus

Ekitaldiko urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta aurrekontuen likidazioa

[Ikuskaritza-txostena, ekitaldiko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, Kapital- eta ustiapen-aurrekontuen likidazioa, eta Programatutako helburuen betetze-mailari buruzko memoria.](#)

Ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	3.141.477 €
Ondare garbia	991.320 €
Negozio-kopuruen zenbateko garbia	3.206.872 €
Batez besteko langile-kopurua	236

Sozietatearen helbidea

Basurtoko Kaputxinoak, 2 – 48013 Bilbo (Bizkaia)

Web gunea

www.eitb.eus